



2 PARTE HARTZEA

Jolas parkeak estaltzeko prozesua jarriko da martxan

Herritarren eskaerari erantzunez, Lasarte-Oriako Udalak eremu publikoak estaltzeko parte hartze prozesua eraman- go du aurrera Hiridunak estu- dioaren laguntzaz. Herritarrek erabaki ahalko dute zein eremu estaliko den, haurren jolas parkeak edo plazak izan daitezke. Prozesuan zehar, beste herrietako adibideak erakutsi, herriko hamar gunetan kartelak jarri eta herritarrekin tailerrak egingo dira haien iriz- tiak jasotzeko.



3 POLITIKA

Aurrekontuen zirriborroa "inoiz baino beranduago"

EH Bilduk Udal Gobernuak 2016 urteko aurrekontuen zirriborroa aste honetan aurkeztu duela salatu du eta PSE-EEK aurreko legealdian aurrekontuak berandu aurkeztea aurpegiatzen ziola gogoratu du. Atzerapen honek ondorioak dituela azpimarratu du. Izan ere, zenbait inbertsio geratuak baitaude, hala nola, kiroldegi berriaren proiektua edo 5. edukiontzia- ren ezarpena. Era berean, aurrera eramaten ari diren lanak aurreko legealdian lan- dutakoak direla ere adierazi du alderdi abertzaleak.



44 pertsonak osatuko dute oraingoz galdeketa- ren Batzorde eragilea. Pertsona kopuru hau handitzen joango dela aipatu zuten Gure Esku Dagoko kideek.

Galdetegia egiteko pausoka-pausoka

Abuztuan amaituko den sinadura bilteta jarri du abian Gure Esku Dagok

2017 urtean Lasarte-Oria erabakitzeko eskubidearen alde "loratu" dadin nahi du Gure Esku Dago taldeak. Horretarako Loratu prozesua aurkeztu eta erronka berria jarri zuen martxan atzo, 1700 sinadura biltzea. Bilteta bi hilabetetan egin behar du taldeak eta hau burutzeko, saretu eta herri- tarren konpromisoa eskatu du.

Gure Esku Dago taldeko lagunek jaialdi ederra egin zuten igandean Loratu ekimena aurkezteko.

Musika, dantza eta itxaropena izan ziren nagusi Oken- do plazan. Txistulariek kaleak alaitu dituzten goizean goiz. Plaza dantzako saioan parte hartzeko, Ostadarreko Ipar martxa taldeak sinkroa ikuste- ko eta zumba egiteko aukera ere izan zen.

Ekitaldi nagusia

Taldeak 2017an erabakitzeko eskubidearen aldeko herri galdeketa egitea du helburu eta horretarako erronka ede-

rra jarri du martxan, bi hilabe- tetan 1700 sinadura bildu nahi ditu.

Horren ostean, 44 bolun- tarienez osatua dagoen Batzor- de eragileak antolatuko du prozesua. Hala ere, bitartean jendea gehituko dela aipatu zuten aurkezpenan.

Era berean, prozesuaren epeak ere azaldu zituzten Gure Esku Dagoko lagunek. Udazkenean bozkatzeko eguna aurkeztuko da, hau Burun- tzaldeko beste bi herrialde- kin adostuko da eta galdeketa aurrera eramango duen talde ere jakinaraziko da. Neguan galdera emango da jakitera



Plaza dantzako, ipar martxako eta zumbako lagunek Gure Esku Dagoren abestia dantzatu zuten.

eta udaberrian galdeketa egingo da.

Goiza ederki amaitzeko, GED pintxo-potea egin zen herriko hainbat tabernatan eta Xumelak girotu zuen.

Sinadura bilteta

Sinadura bilteta hasi da dagoeneko. Atzo goiza osoan zehar, sinadurak biltzen egon ziren eta 450 bat lortu zituzten.

Baina 1700era iristeko, herritarren laguntza beharko dute eta horretarako lokal bat atondu dute Geltoki kalean, gozoki denda zegoen loka- lean. Asteazkenean zehar arratsaldean egongo da irekia eta larunba- tetan goizean.

Sinatu ahal izateko bi bal- dintza bete behar dira: 16 urte baino gehiago izatea eta Lasarte-Orian erroldatua ego- tea.



www.lhusurbil.eus
 943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

AURREMATRIKULA Ekainaren 6tik 17ra



Erdi eta goi-mailako zikloak A, B eta D ereduak



PARTE HARTZEA

Euritan ere jolasean!

Parte hartze prozesua jarri du martxan Udalak Hiridunak estudioarekin

Udalak parte hartze prozesu bat egingo du espazio publikoak estaltzearen inguruan erabakitzeke. Alkateak azaldu zuenez, guraso askoren eskaera da herrian haur parke bat estaltzea. Erabaki politiko bat izan beharrean, herritarrek erabakitzea nahi du Udalak eta horretarako Hiridunak estudioko lagunek gauzatuko dute parte hartze prozesua.

Euritan ere jolasean' da udalaren parte hartze prozesu berriaren izena. Herrian plaza edota parkeak estaltzearen beharra aztertu nahi da haurrak, guraso eta herritarren hausnarketaren laguntzaz.

Hiridunak estudioa hasi da parte hartze prozesu hau garatzen eta Agustin Valdiviak azaldu bezala, 12.000 euroko kostua izango du.

Jesus Zaballo alkateak agerraldian aipatu zuen euren hauteskunde kanpainako konpromisoetako bat zela haur-errentzako jolas leku bat estaltzea. "Asko ziren eskaera hau egiten zuten herritarrek. Aipatzen ziguten euria egiten duenean, ez dutela merkatal gunetara joan nahi umeekin. Herrian asialdirako gune alternatiboak eskatzen dituzte

eguraldi txarreko egunetarako". Parke edo plaza bat estaltzeko erabakia "ez luke politikoak hartu behar. Horregatik abiatu dugu prozesu hau".

Lehen urratsa, eskolekin lan egitea da. LH1 eta 2. mailako ikasleekin lanean hasi dira herrian behar dituzten espazioak zeintzuk diren jakiteko. Gurasoei inkesta bat bidali zaie eta eskoletako arduradunekin ere hitz egin da euren iritziak ezagutzeko. Azpimarratu behar da, kurso amaiera dela eta, gurasoek eskolara beteta eramateko tarterik ez badute, inkestak parte hartze postontzietan utzi ditzaketela.

Uztailaren 4ean erakusketak jarriko dira herrian zehar beste herri eta hiri batzuetan estali diren jolas parke edota



Aurkezpena ostegunean egin zuten udal ordezkariak Hiridunak estudioko lagunekin.

plazaren adibideekin. "Herritarren artean hausnarketa bultzatu nahi dugu honekin, hasierako formazio bat gauzatu". Herriko hamar guneetan kartel berezi batzuk ere jarriko dira erabiltzaileen artean 'estalpean non?' galdera horri erantzuna emateko.

Ondoren, irailean, diptiko

bat banatuko da etxetara eta iraila eta urria bitartean hiru tailer ireki egingo dira herritarren iritziak jaso eta estalpea behar duten lekuak erabakitzeko. "Estalpea ez da zertan haur parke batean jarri behar agian herritarrek nahiago dute herriko plazaren bat estali umeei nahi dituzten jolasak

bertan egiteko aukera izan dezaten. Agian herriko frontoiak zabalik uztea da aukera bat".

Tailerretatik ateratzen diren ondorio eta eskaerak, udalak aztertuko ditu eta zein lan exekutatu erabakiko da. Horretarako aurrekontuetan 140.000 euroko partida dago.

Hasi da hauteskunde kanpaina herrian

Ostiralean hasi zen ofizialki hauteskunde kanpaina eta herrian ere nabaritu zen.

Alderdi ezberdinetako kideak, batzuk gauerdian beste batzuk egunean zehar, bozka eskatzeko kartelak jartzen aritu ziren. EAJ, EHBildu eta Unidos Podemos-eko kideak harrapatu zituen TXINTXARRI-k.

Ekainaren 26an errepikatuko dira estatuko hauteskundeak eta alderdiek bozka kopurua mantendu edota handitu nahi dute. Gogoratu behar da abenduaren 20an

Gipuzkoan bezala, Lasarte-Orian ere Ahal Dugu-Podemos izan zela alderirik bozkatuena, 2.883 lasarteoriatarren konfiantza lortuz, bozkatzaileen %28,17.

PSE-EEK 2.541 boto lortu zituen, EHBilduk 1.465, EAJk 1.333 eta PPK 1.051. Herrian parte hartzea %72,42koa izan zen.

Ciudadanos lehenengo aldiz aurkeztu zen 486 boto irabazita. Ikusi behar herriko festen aurrekari den deialdi berriari emaitzak errepikatzen diren.




EAJ



Alderdi ezberdinetako ordezkariak izan ziren ostiralean kartelak herrian zehar jartzen.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidor Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

POLITIKA

Aurrekontu berantiarrak

Aurrekontuen zirriborroa ekainean jasotzea salatu du EH Bilduk

Aurtengo aurrekontuen zirriborroaren aurkezpena dela eta, agerraldia egin zuen EH Bilduk ostegunean. Udal Gobernuak prozesua "inoiz baino beranduago" egin duela salatu du, eta "ondo-riok" ekarri dituela zehaztu: "Aurrekontuen falta dela kausa, inbertsio ugari estankatuta daude, kiroldegi berriaren proiektua edota 5. edukiontzia ezarpena, besteak beste".



EH Bilduko zinegotziak agerraldian.

TXINTXARRI

Ekainean gaude, PSE-EEK urtebete darama gobernuan eta astelehen honetan aurkeztu digute aurtengo aurrekontuen zirriborroa. Aurreko urteetan, plenoak joan eta plenoak etorri, aurrekontuak berandu aurkeztea aurpegiatzen ziguten, eta eurek inoiz baino beranduago aurkezten dizkigu bereak, salatu du EH Bilduk.

Horren eraginez, koalizio abertzalearen aburuz, "estankatuta" daude zenbait inbertsio. Kiroldegi berriaren proiektua eta 5. edukiontzia ezarpena aipatu dituzte. "Urtebete honetan ez da ezer berririk planteatu eta geratuta egon da herria, lasarte-riatarren kalterako; izan ere, Udal Gobernuak hilabeteotan egin edota planteatu dituen egitasmoak -asfaltatze lanak, Garai-

koetxeako jangela, Okendoko garajeak, etab.- aurreko legegintzaldian teknikoki garatu eta bideratutako proiektuak izan dira, aldaketa oso gutxiarekin".

Arestian aipatutako proiektu horiek "2015eko aurrekontuaren luzapenarekin eta aurreko gobernuak utzitako 500.000 euroko soberakinarekin" burutu ditu Udal Gobernuak, EH Bilduk zehaztu duenez. "Herentzia hori jaso dute aurreko gobernuarengandik, ez dira kexatuko! Ez da ahaztu behar krisiaren gordinenean hartu zuela alkatetza EH Bilduk: 2.400.000 euro bueltatu behar zitzaizkion Aldundiari hiru urtetan, udaletxe berri eta faraonikoaren azken faktura ordaindu eta eraikin hori altzairuz homitu".

"Usain zaharreko politika"

"Aipatutako guztiaren ondoren, hala ere, kudeatzaile ontzat dute

euren burua, besteak beste, Gasteizen EAJ-PSE-EEK akordioak salerosteko erakutsi duten gaitasunagatik", adierazi du EH Bilduk. "Diru publikoa norberaren interes elektoralaren zerbitzura" jarri dela kritikatu du koalizio abertzaleak; administrazioa, berriz, "alderdiaren, herritarren beharrez; usain zaharreko politika egiteko modua da hori, EH Bilduk egin eta egingo ez duena".

Aurreko legegintzaldiari buruz ere mintzatu da EH Bilduk. Nabarmendu du "harro" dagoe la lau urte horietan egindako kudeaketa "zuhur, arduratsu eta zintzoaz". Gehitu du "oraingoa baino testuinguru okerragoan" gai izan zela "jasotako herentziari buelta eman eta Lasarte-Oria egoera hobean uzteko; oraingoz, gobernu berriak ezin du gauza bera esan".

ZABALETA AUZOA

Gamusinoen gaua

Zabaletako haur eta gazteak aurten ere gamusinoen bila joango dira ekainaren 17an. 'Astindu zartaginak, zabal ongi begiak, adi-adi bi belarriak' izenpean hamaika abentura biziko dituzte.

20:30etatik aurrera, kanpin denda jarriko dira Antonio Blas plazan.

21:30ean, afalduko da. 22:30ean, gamusinoen bila joango dira eta 23:30ean guztiak lotara joango dira. Goizean, gosari gozo-gozoa dastatu ahalko dute guztiak.

Adin guztietako haur eta gazteek parte hartu dezakete ekintzan. Hala ere, haur txikiak gurasoren batez lagunduta parte hartu dezaketela jakitera eman dute.

Era berean, afaria norberak bere etxetik eraman behar duela eta bestetik, gamusinoen bila joateko haurrek zartagina, koilara, linterna eta mendirako arropa eroso behar dutela azpimarratu dute antolatzaileek.



SAN PEDRO JAIK

Zikero afariko txartelak salgai

Urtero legez, Ttakun kultur elkarteak San Pedro Jaietako lehen egunean Zikero afaria antolatu du. Hitzordua, ekainaren 28an, 21:30ean izango da, Okendo plazan.

Zikero erre gozoa dastatzeaz gain, entsalada, postrea, kafea eta kopaz gozatuko dute mahaikideek.

Afarirako txartelak 20 euro balio ditu eta gaurtik aurrera, Jalgi Kafe Antzokian eta Ttakun elkartearen daude salgai. Txartelak eskuratzeko azken eguna ekainaren 26a da.

UDALA

Udalaren doako WiFi sarea zabaldu da

Lasarte-Oriako Udalaren WiFi sareari sarrera-puntu bat gehitu zaio, Antonio Mercero eraikina. Haren inguruan ere emango du estaldura, hau da, Okendo Plazan eta Askatasuna Parkean Udalaren WiFi erabili ahalko da.

Udalaren WiFi sareak une honetan udal-eraikin gehienak eta haien inguruak estaltzen ditu: Manuel Lekuona Kulturetxea, kirol-zelaiak, Villa Mirentxu, Gaztelekua, Udal-Euskaltegia, Udal-Kiroldegi, Obra eta Zerbitzuen Pabiloia eta Udaletxea.

Zerbitzuak darabiltzan SSID identifikadoreak "Udala" eta "Udalwifii" dira. Udalak jakitera eman duenez, sare horretara konektatu ahal izateko, interesatuek sare horren erabiltzaile gisa erregistratu behar dute.



Ikasitakoa oholtzaratzen

Udal Dantza eskolako ikasle gazteek euren trebezia erakutsi zuten Manuel Lekuona kultur etxean, asteazken arratsaldean. Ikasturte amaierako erakustaldi koloretsua eskaini zuten guraso eta lagunen aurrean.

Aurten ikasitako guztia oholtzaratu zuten asteazken arratsaldean Udal Dantza eskolako ikasle gazteek. Era guztie-

tako mozorro koloretsuak soinean, koreografia ederrak eskaini zituzten, guraso eta lagunen gozamenerako.

Piano emanaldia bihar

Bihar berriz, Udal Musika Eskolako piano ikasleen txanda izango da. Arratsaldeko seieta hasita, kontzertua eskainiko dute kultur etxean bertan.

Merkataritza sustatzeko doako aparkalekua

EAJ-k Lasarte-Oriako merkataritza sustatzeko egitasmoa proposatu du asteartean egingo den udalbatzarrean, BMko parkinean erdialdean erostetarako egiten duten herritarrentzat dohaineko aparkalekuak eskaintzea.

Parkineko jabea den Murias-en eta Aterpea merkatarien elkartearen arteko hitzarmen bat bultzatzea proposatu dio alderdi jeltzaleak Udal Sozioekonomia sailari.

Era berean, hitzarmen horretatik eratorri daitezkeen gastuei aurre egiteko aurrekontu partida nahikoa aurreikustea eskatuko du.

Honen bitartez, "dendetako arduradunek gaur egungo BMko parkinean gehienez bi orduko aparkaldiko balioa izango luketen tiketak eskaini ahal



EAJko Estitxu Alkorta BM-ko aparkalekuaren aurrean mozioa eskutan duela.

izango dizkiete bezeroei. Bi ordu baino gehiagoko aparkaldiak, erabiltzaileek beraiek ordaindu beharko dituzte kotxeak ateratzeko momentuan".

Beste gaiak

Mozio honetaz gain, beste hamaika gai jorratuko dira

asteartean, 18:30ean hasiko den bilkuran, esate baterako, lokalak etxebizitza bezala erabiltzeko arautzen duen ordenantzaren hasierako onspena, Lasarte-Oria 2030 Plan Estrategikoa lantzea edo jarduera-osagarria eta eskola orduz kanpoko programek izan dituzten murrizketak.



Herriko merkataria, zugandik gertu



KATTAGORRI JOLAS
kattagorrijolas@gmail.com



AKENE zapata denda
marianzapata@gmail.com



ALBA moda denda
albamodaimagen@gmail.com



ALDA osagarriak



AMALUR ziberlokutorioa
locutorioamalur@hotmail.com



ARITZA mertzeria
www.merceriaaritz.com



ANDATZA taberna



YOLANDA taberna



VIÑA DEL MAR taberna



ARKUPE taberna
facebook.com/ArkupeTaberna



NOELIA osteopatia-fisioterapia
info@noeliacalero.com



ABREU bazarra
bazarabreu@hotmail.com



BIDEO LAGUNAK
www.bideolagunak.com



OKELA harategia
okelaharategia@gmail.com



CARREFOUR EXPRESS
www.carrefour.es



ALDATZ hortz klinika
www.dentalaldaz.com



NOGUES jostudenda
noguesmoda@gmail.com



DONNA arropa denda



BUENETXEA kafetegia
buenetxea@live.com



BUS kafetegia



ARREGUI elektrizitatea
www.electricidadarregui.com



SUKOA burdindegia
f.sukoa@hotmail.com



MAITE BETELU gestoria
www.mbetelu.com



IZARRA bitxitegia
izarrabitxitegia@hotmail.com



ARAETA sagardotegia
www.araeta.com



APALATEGI taberna
cafeteriaapalategi@gmail.com



LASARTE parafarmazia
parafarmazia.lasarte@gmail.com



OLA enmarkazioak
oladecoracion@gmail.com



IZA-GUERRI + C loteriak
plusizaguirre@gmail.com



LASARTE taberna
www.barlasarte.com



SANTXO taberna



ZUMABURU liburudenda
libreriazumaburu@hotmail.com



MULTIOPTICAS optika



JOSEMA burdindegia
cerrajeriajosema@hotmail.es



ILARGI taberna



IZURDE taberna



MAYA lentzeria



OLMI mertzeria
mercerialmi@yahoo.es



URRUZOLA mertzeria



NOAOA bidaiak
www.noaoabidaiak.clickviaja.com



LIZARRI optika
optikalizarri@hotmail.com



ORBELA ekodenda
orbeladenda@gmail.com



ORMAZABAL loradenda
www.floristeriaormazabal.es



MAIANE perfumeria
www.perfumeriamaiane.com



MARTIN BERSATEGUI jatetxea
www.martinberasategui.com



SANTANA informatika
facebook.com/SantanaInformatika



ALCAR leihoak
www.ventanasalcar.com



ISU leihoak
ventanas_isu@hotmail.com



VENTANAS SAN MIGUEL
www.ventanassanmiguel.com



TRUMOI taberna



ITURBE oinetakoak



AVENIDA kafetegia



BOZAL GERMAN

ARETO-FUTBOLA.

Txindoki garaile Mosso Oroimenezkoan

Insaustiren aurka jokatu zuen finala eta 4-2 irabazi zuen norgehiagoka

Mosso Memorialeko finala jokatu zen atzo goizean. Aurrez aurre Txindoki eta Insausti taldeak izan ziren. Partida gogorra izan zen, baina Txindokik bigarren urtez jarraian eraman zuen kopa etxera.

TXINTXARRI

Hiru partida bi egunetan jokatu behar izan dituzte Mosso Memorialeko finalera iritsi diren Insausti eta Txindoki taldeek.

Txindoki iazko txapeldu-nak garaikurra eskuratu nahi zuen berriro ere eta ez zion aukerarik eman nahi izan Insaustiri.

Lan ederra egin eta bi gol sartu zituen lehen zatian. Insaustik aukerak izan zituen lehen zatiko azken minutuetan tarte murrizteko baina baloiak ez zuen sarean amaitzerik izan.

Bigarren zatian, Insaustik indarrez ekin zion emaitza berdintzeari eta atezain jokalaria atera zuen horretarako. Honela lortu zuen 2 eta 1eko.

Estrategia honekin jarraitu zuen Insaustik erasoan eta aukera dezente izan zituen. Zoritxarrez Txindokik bi gol egitea ere ekarri zuen. Azken segundotan guztia erabakia

zegoela lortu zuen Insaustik 4 eta 2koa.

Finalerdietarako txartela

Larunbata arratsaldeko finalerdietan, Insausti-El Punto eta Ilargi-Txindoki buruz burukoak ikusi ziren.

Lehen partida interesgarria izan zen. Bi taldeek finalean egon nahi zutela argi zegoen. Azkenean, Insaustik 5-4 irabazi zion El Puntori.

Bigarren norgehiagokan aldiz, Txindoki nagusi izan zen. Ilargik ezin izan zuen ezer egin eta 0-4 gailendu zen Txindoki.

Harrobia lantzen

Ostadar SKTko areto-futbol alorrek entrenamendu batzuk antolatu ditu alebin, infantil eta kadete mailetako gaztetxoentzat. Michelingo areto-futbol kantxan izango dira, 17:30ean.

Doakoak dira entrenamendu saio horiek; lau dira guztira. Asteazken eta ostiral



Txindoki eta Insaustiko kideak Mossoren alargunarekin batera atera zuten argazkia partida amaitzean.

honetan egingo dituzte aurreneko biak; beste biak, hurrengo asteazken eta ostiralean. Konpromisorik gabeko hitzorduak direla jakinarazi dute antolatzaileek. Beste hitz batzuetan esanda, lan-saio horietan parte hartzen duten haurrek ez dute zertan areto-futboleant jokatu datorren denboraldian. Ostadar SKTko kideek gaztetxoak animatzen dituzte entrenamenduetan parte hartzera.



Ostiral arratsaldean hasi ziren Mossoren oroimenezko final laurdenak.

CROSSFIT.

Koroibos Race, lehiaketa gogorra

Indarra eta erresistentzia neuritzen duen proba egin zen larunbatean Basaundi eta Zumabuzo auzo artean, lehenengo Koroibos Race-a.

3 kilometrotako ibilbidea eta 10 indar proba egin behar izan zituzten 50 parte hartzaileek, horietako 17 neskek.

Gurpilari buelta eman, kettlebellak igo, enbor zati bat bizkarrera eraman... herritarrek harridura aurpegiarekin begiratzin zituzten lehiakideak.

Bi maila ezberdinetako txapelketa izan zen gainera, Rx, esperientzia duten atletak eta Open, lehen pausoak ematen ari direnak. Ezberdintasuna probetako gailuen pisuak ziren.

Irabaleak Rx mailan, Xabier Azkarate eta Maddi Otxoa izan ziren; open mailan, berriz, Daniel Garcia eta Garoa Martinez. Box hoberena CrossFit Zurriola izan zen.



Irudietan, Koroibos Race lehiaketan egin behar zituzten probetako bi.

LABURRAK.

Santa Ana pala txapelketan izena eman daiteke asteazken honetara arte

Lasarte-Oriako Udaleko Kirol Zerbitzuak Santa Ana pala txapelketaren XXXV. edizioa antolatu du. Ekainaren 20an hasiko da, antolatzaileek zehaztu dutenez. Irekita dago izena emateko epea, asteazken honetara arte. Udal Kiroldegira joan beharko dute interesa dutenek, eta zenbait datu eman: bikoteko kideen eta ordezko jokalaria izena, bi abizen eta telefono zenbakia, hain zuzen. 16 urtetik gorako gizon zein emakumeek ahalko dute parte hartu txapelketan.

Mikel Etxarri entrenatzailea Texasen udako futbol kanpalekuko osteguneko saioan



Texasek antolatutako udarako futbol kanpalekuan ari diren gaztetxoek ez zuten nolana hiko maisua eduki pasaden osteguneko saioan. Mikel Etxarri futbol entrenatzaile herritarra Michelinen izan zen, bere ibilbidean zehar pilotutako ezagutzak partekatzen. 50 herritar baino gehiagok eman dute izena kanpalekuan.

Ostadarreko saskibaloia eskolako izen-ematea

Saskibaloia eskolak segida edukiko du datorren denboraldian. Ostadar SKT jakinarazi du gaur irekiko duela bertan izena emateko epea, ostiralean arte. 2005 eta 2008 urte bitartean jaiotako neska-mutilak apuntatu ahalko dira. Horretarako, Ostadarrek Geltoki kalean daukan lokalera joan beharko dute.

Agenda

Astelehenetik igandera, Manuel Lekuona kultur etxea



Antzerkia eta dantza, bigarren astean

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako lagunak hamabostaldiko bigarren astean sartu dira. Asteazkenean zehar txiki, gazte, zein helduen antzerki lanak izango dira nagusi;

asteburuan, berriz, dantza talde ezberdinen emanaldiez gozatzeko aukera izango dute Manuel Lekuonara hurbiltzen diren herritarrek. Sarrera euro batekoa da.

Astelehena 13, 18:00etan
Txomin ipurdi. LH1
Hiru Txerrikumeak. LH1
Zazpi antxumeak eta saltzaileak. LH2
Otsoa galdurik. LH2
Artzain gezurtia. Sasoeta LH1-2-3
Zazpi antxumeak. Sasoeta LH1-2-3
Zazpi ipotxak eta otsoa. Zubieta LH1-2

Asteazkena 15, 19:00etan
Frozen. DBH1-2

Osteguna 16, 18:00etan
Bihotz gazteen iraultza. LH6
Ikusi den antzezlan onena. LH6

Osteguna 16, 21:00etan
Vygotsky cafe. Gazteak

Ostirala 17, 20:00etan
Itxaroten. Helduen taldea.

Larunbata 18, 20:00etan
Dantza garaikidea. Dantzas Blai eguna.

Igandea 19, 12:30ean
Euskal Dantza. Dantzas Blai eguna.

Igandea 19, 19:00etan
Euskal Dantza sorkuntza. Dantzas Blai eguna.

Lasarte-Oria

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 14, 18:00etan

Udal Musika eskolako piano irakasleek emanaldia eskainiko dute.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata 18, 20:00etan

Alboka Abesbatzak ikasturte amaierako kontzertua eskainiko du.

ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEA

Asteazkena 22, 18:00etan

Biyak Bat elkarteko abesbatzaren emanaldiaz gozatzeko dute egoiliar eta familiek.

Birziklatu

OKENDO PLAZA

Ostirala 17, 17:00etatik 19:00etara

Birziklatu eskuz egindako egurrezko jostailu erraldoiez gozatu ahalko dute 6 eta 12 urte bitarteko haurrek. Lasarte-Oriako gazte talde batek dinamizatutako ekitaldia.

Scooter Rallya

JAIZKIBEL PLAZA

Ostirala 17, 19:00etan

Motorren harrera eta erakusketa.

BUENETXEA TABERNA

Ostirala 17, 23:00etan

Bartzelonako Mortadela taldearen kon-

zertua eta ostean, Donostiako Ritxi Skatalite, Logroñoko Jorge Stereo eta Bartzelonako Garduño DJen saioak.

OKENDO PLAZA

Larunbata 18, 10:30ean

Motorren harrera eta erakusketa.

Larunbata 18, 12:00etan

Scooter Run irteera.

ANDAPA KALEA

Larunbata 18, 18:00etatik 18:30era

Motorren erakusketa eta DJ izateko aukera.

BUENETXEA TABERNA

Larunbata 18, 23:00etan

Donoatiako Lie detectors taldearen

kontzertua eta ostean, Bartzelonako Cazorla eta Baionako Roberto Tortuga DJen saioak.

GOLF PLAZA

Igandea 19, 12:30ean

Motorren erakusketa.

Gamusinoen gaua

ZABALET AUZOA

Ostirala 17-Larunbata 18

20:30ean, kanpinak montatu.

21:30ean, etxetik eramandako janaria afaldu.

22:30ean, gamusinoen bila joan

23:30ean, lotara joan.

09:00etan, gosari gozoa dastatu.

Herritarren txokoa

Kamiseta tintatzea

Lasarte-Oriako haurrek Ttakun KE-k antolatuta, Koadriren jaia dute ekainaren 28an, haurren txupinaren ostean.

Koadriek kamisetak edo blusak eraman behar dituzte. Hauek prestatzeko Ttakun KE kamisetak tintatu eta izena jartzeko tailerra egingo du.

Ekainaren 14an, asteartea, arratsaldeko 15:30etik 17:00etara izango da tailerra Landaberri-Garaikoetxea erai-kineko patioan. Bakoitzak kamiseta txuri bat eraman behar du.

Ekintza honetan parte hartzeko izena eman behar dute haurrek. Izena ematea irakasleari esanaz edo Ttakuneko bulegora hurbilduz egin dezakete.

Odol-ateratzea

Hilabete honetan ekainaren 20an, astelehena, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Italiara bidaia

Uda honetan Roma, Florentzia... alde-ara modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonen osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaitetz! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

IMBERSOko akreditazioak

IMBERSOko akreditazio berriak aurkezteko epea ireki da.

Akreditazioa eskuratu nahi duten herritarrek Noaoa Bidaiek bulegoko kideen laguntza jaso dezakete egiteko.

Hemeroteka

Duela 1222 ale

San Pedro Jaietarako bi aste besterik geratzen ez diren honetan, Sorgin Dantzari buruzko albisteak dakargu txoko honetara. 1998ko ekainaren 26ko alean TXINTXARRI aldizkariak Sorgin Dantzaren banderaren bedeinkapenaren berri eman zuen. Hau da Sorgin Dantzako zortzikoteko buruak eskutan daraman bandera.

Albistean Oriako Sorgin dantzako lagunaren 50. urteurrena zela eta, bandera berriaren bedeinkapenaren eta Orian antolatu zen jaiaren nondik norakoak azaltzen dira, testu eta argazkien bitartez.

Era berean, bandera berriaren zergatia ere azaltzen da. 1951 urtean bandera galdu zen Donostian egin zen emanaldi baten ostean eta 1982tik Ibarginen bandera erabili zuten dantzariak.

Bandera berriko alde batean Alejandro Romok egindako sorginaren burua azaltzen da eta bestean, Oriako lantegiaren irudi zen antilopea.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Rocioko giroa Atsobakar auzoan

Herritar ugari hurbildu zen erromeriaz gozatzera

Rocioko erromeria giroa izan da Atsobakarreko parkean asteburu osoan zehar. Musika eta dantza emanaldiez gain, Andaluziako jakiak ere izan dira parkera hurbildu diren herritarrentzat.

TXINTXARRI

Seblante Andaluz elkar-teak XIII. Rocioko erro-meria ospatu du Atsobakarreko parkean. Era honetara, Rociora joan ezin izan zuten herritarrek astebu-ru honetan arantzaxoa ken-zeke aukera izan dute.

Larunbata eta atzo goize-ko lainoei aurpegi ona eraku-tsi zioten elkarteko kide eta lagunek eta haien musika eta dantzekin alaitu zuten Atso-bakar auzoa, baita euria uxatu ere.

Larunbat eguerdian hasi ziren ospakizunak eta arra-taldean, Seblante Andaluz

elkarteko taldeekin batera Errenteriako Aljarafe elkarteko koro eta dantza taldeak izan ziren protagonista.

Atzo goizeko Arantzazuko Ama Birjinaren parrokiaren mezaren ostean, Rocioko Ama Birjinaren irudiak Lasarte-Oriako kaleak zeharkatu zituen.

Elkarte gonbidatuetako taldeek alaitu zuten bazkal aurre eta ostea.

Eta jaiari amaiera emateko 'Salve Rociera' abestu zuten guztiek.



Emanaldi ugari izan ziren Atsobakarreko parkean. Erromesaldia ere izan zen atzo.

EPA LASARTE HHI

2016-2017 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Ekainaren 15etik 30era

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH/ESO)
- Erdi eta Goi zikloko Sarbide Proben prestaketa
- Gaztelania atzerritarrentzat



Ordutegia:
11:00-13:00
(anbulategi gainean)

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.es

2 ETA 3 GELAKO ETXEBIZITZAK 4 GELAKO ATIKOAK, GARAJEAK ETA LOKALAK

SALGAI!



ZUBIEDER
CONSTRUCCIONES

☎ 609 000 140

PROMOCIONES LANONDO, S.L.
LANONDO